



GARRAIO ZERBITZUARI BURUZKO INFORMAZIOA

Garraio zerbitzuari buruz indarrean dagoen araudia

- [35/2022 Foru Agindua, maiatzaren 11koa](#)
- [Ebazpena, urteko jarraibideekin](#)

Eskolako garraio zerbitzuaren erabiltzaileak

(35/2022 Foru Agindua, 6. artikulua) Hezkuntza Departamentuko Zerbitzu Osagarrien Atalak antolatu, kudeatu eta finantzatuko du garraio kolektiboa.

Maiatzaren 11ko 35/2022 Foru Aginduaren arabera Nafarroan bizi diren ikasleak dira eskola garraioaren onuradun, baldin eta ikastetxe publikoetan matrikulatuta badaude eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Haur Hezkuntzako bigarren zikloko, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Hezkuntza Bereziko, Lanbide Heziketa Bereziko, oinarrizko mailako heziketa zikloetako, Batxilergoko eta erdi mailako heziketa zikloetako ikasketak egitea, foru agindu honetan zehazten diren baldintzetan.
- b) Nafarroako Gobernuak ezarritako eskola zonifikazioaren arabera dagokion ikastetxe publikoan eskolatuta egotea (80/2019 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko Ikastetxe Publikoen Sarea berrantolatzen duena).
- c) Ohiko bizilekua ikastetxea dagoen udalerrria ez den beste batean izatea, eta bien arteko distantzia [hiru kilometrotik](#) gorakoa izatea, lerro zuzenean zenbatuta.

(OF 35/2022 Foru Agindua, 12. artikulua) [Zaintza partekatuko](#) egoeran dauden ikasleek, ohiko bizilekuaren arabera esleitua badute eskola garraio kolektiboko tokia, banakako laguntza eskatzen ahalko dute beste gurasoaren etxebizitzan bizi diren egunetarako.

(35/2022 Foru Agindua, 15. artikulua) Ikasle batek ibilbide jakin bat arrunki erabili behar badu eta ez bada ibilbide horren onuraduna, [eserleku huts bat](#) eskatu ahal izanen du. Ikasle horiek Hezkuntza Departamentuak ibilbide bakoitzerako baimendutako geralekuetan eta orduetan sartu beharko dute ibilgailuetara.

Ikasle garraiatuen sarrera eta irteeren antolaketa eta arreta

Garraio zainzaileak arduratuko dira ikasle garraiatuen harretaz, bai ikastetxean sartu bitartean bai ateratzen direnean ere.

Garraioaz arduratuko den irakaslea honako hau izanen da: **Nerea Labayen**

Honela antolatuko da:

- Garraioa ikastetxera sartzeko edo ateratzeko ordua baino 5 minutu lehenago iritsiko da.

- Garraioko zaintzaileak eskolako atak ireki bitartean zainduko dituzte Haur Hezkuntza eta lehen zikloko ikasleak. Gainerako ikasleak patiora jeitsiko dira karranpatik.
- Era berean, zaintzaileek 15.30etan eskolako atean jasoko dituzte Haur Hezkuntza eta lehen zikloko ikasle garraiatuak. Gainerako ikasleak zuzenean joango dira autobusera.

Ibilbideak eta Ordutegia

Indarrean dagoen araudiak ezartzen duen bezala, eskola garraioa ikastetxetik aterako da egunero 15.30etan.

IBILBIDEA	ZAINZAILEA	HERRIAK	astelehenetik - ostiralera	
			Goizean irteera	Arratsaldean iritsi
0714	Belén Miguel	MADOTZ	08.17	16.00
		ODERIZ	08.25	15.55
		ASTITZ	08.30	15.50
		ALLI	08.35	15.46
		IRIBAS	08.40	15.41
		BARAIBAR	08.47	15.36
0713	M ^a Carmen Bildarraz	MUGIRO	08.30	15.35
		ARRUITZ	08.38	15.40
		ALDATZ	08.45	15.47
		ETXARRI	08.48	15.52
0712	Marilo Roteta	GORRITI	08.30	15.50
		UITZI	08.43	16.03
		AZPIROZ	08.20	15.40

Garraioaren noizbehinkako aldaketen kudeaketa

- Garraioaren erabilera aldatu behar bada, bai sarreran bai irteeran, familiek BETI jakinarazi behar diete garraioko zaintzaileei eta tutoreei.
 - Familia batek ez badu jakinarazi ikasleak EZ duela autobus zerbitzua

erabiliko ikastetxetik irtetea, ikaslea autobusera igoko da.

- Hobeki antolatzeko, behin baimena emanda, familiei, ibilbide bakoitzeko laguntzailearen telefonoa emango zaie.
- Familiek uzten badiete seme-alabei bakarrik joaten garraioaren geralekutik etxeraino, horretarako baimen idatzia aurkeztu beharko dute ikastetxean.
- Garraiatua ez den haurren batek, egunen batean, zerbitzu hau erabili nahi badu, edo ez ohiko ibilbidea egin behar badu garraioko plaza hutsen eskaera inprimakia bete beharko du eskolan, bestela ez zaie utziko.

(Garraiorako jarraibideen urteko ebazpena) Ikaslea ez badu jasotzen aitak, amak edo horren ardura eman zaionak, eta haietako bat ere ez badago, ez zaio haurrari ibilgailutik jaisten utziko, eta aitarekin, amarekin edo ikastetxeko arduradunekin harremanetan jartzen saiatuko da. Ez bada lortzen haietako inor lokalizatzea, hurbilen dagoen agintaritza publikoaren egoitzan utziko da ikaslea (Udaltzaingoa, Foruzingoa edo Guardia Zibila), behin ibilbidea bukatutik.

Garraioa erabiltzeko arauak

- *(35/2022 Foru Agindua, 23. artikulua)* Eskola garraioa erabiltzen duten ikasleek honako betebeharrak bete beharko dituzte: puntualak izatea, modu egokian portatzea, segurtasun uhala erabiltzea, eserlekuan eserita egotea, gainerako erabiltzaileak eta langileak errespetatzea, ibilgailua zaintzea eta enpresako langileen jarraibideak betetzea.
- *(35/2022 Foru Agindua, 23. artikulua)* Zerbitzuaren betebeharrak betetzen ez dituzten ikasleak, edo laguntzaileen nahiz garraio enpresaren langileen aginduak betetzen ez dituztenak, beren jarduketan erantzule izanen dira, bat etorritik ikastetxearen Elkarbizitzako Erregelamenduan xedatuarekin, eta eragiten dituzten kalteak konponduko dituzte.

Zaintzaileen betebeharrak eta eginkizunak

Ikastetxe publikoetako eskola garraioko zaintzaile bat egonen da bederatzi toki baino gehiago izanik, Haur Hezkuntzako 2. zikloko, Lehen Hezkuntzako eta Hezkuntza Bereziko ikasleak eramaten dituzten ibilgailuetarako. Eginkizun hauek izanen ditu:

- Ikasleak jasotzea eta haiei lagun egitea, ikastetxearen eremuaren barnetik edo ikastetxearen eremu barneraino, zein den kasua, eta ilara burua izatea ikastetxearen eremura sartzeko eta handik ateratzeko ibilbidean. Lan horretan, ikastetxeko Zerbitzu Osagarrien Planean eginkizun horretarako ezarritako irakasleen laguntza izanen du, Haur Hezkuntzako eskola publikoen, Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen eta Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoen Erregelamendu Organikoa garatzen duen uztailaren 16ko 257/1998 Foru Aginduaren 7. artikuluan eta Bigarren Hezkuntzako Institutuen Erregelamendu Organikoa garatzen duen uztailaren 16ko 258/1998 Foru Aginduaren 10. artikuluan.

- ezarritakoari jarraikiz.
- Garraioaren ibilbide osoa egitea, lehenbiziko geralekutik ibilbidearen bukaeraraino, kontrolatuz nola igotzen eta jaisten diren ikasleak ezarritako geralekuetan.
 - Ibilgailu barruan egotea lehen ikaslea igotzen denetik azkena jaisten den arte, uneoro bere eginkizunak betez, ikasleak ikastetxearen eremura sartzen diren arte.
 - Orobat, itzultzeko ibilbidean, abiaburuko ikastetxearen eremuan egotea ikasleak ateratzeko ordua baino 5 minutu lehenago, egiaztatzea ikasleak autobusera igotzen direla eta ibilgailuan egotea, bere eginkizunak betez, azkeneko ikaslea jaitsi arte.
 - Egiaztatzea ezen ikastetxeak emandako ikasleen zerrendako ikasleek bakarrik erabiltzen dutela dagokien garraio zerbitzua.
 - Mugikortasun murriztua duten ikasleei laguntzea autobusera igotzen eta autobusetik jaisten.
 - Ikasleei eserlekuak banatzea, kontuan harturik haien adina, nongoak diren edo bidezkoztat jotzen diren bestelako irizpideak.
 - Autobusa abiatu baino lehen ikasle guztiak eserita daudela egiaztatzea. Inola ere ez baimentzea toki baino ikasle gehiago egotea.
 - Irisgarriagoak diren toki hurbilak mugikortasun murriztua duten ikasleentzat gordetzea.
 - Eskola materiala (motxilak, zorroak, karpetak eta abar) toki egokietan kokaturik daudela egiaztatzea, inolako arriskurik ekar ez dezaten ibilbidean zehar.
 - Ibilgailuaren maletategian ekipajerik sartu behar bada, aurrean egotea ekipajea sartzen eta ateratzen den bitartean.
 - Garraiatutako ikasleak ongi portatzen direla begiratzea, borrokarik, eztabaidarik eta jokabide txarrik gabe.
 - Geralekuetan jaisten lehenbizikoa izatea, adierazteko zein den unerik egokiena ikasleak ibilgailura sartzeko edo handik ateratzeko.
 - Ikasleak ondoezik badaude edo bidaian beste gorabeherarik gertatzen bada, horren berri ematea ikastetxeko arduradunari, helmugara iritsitakoan. Etxera itzultzeko bidaia bada, horren berri ematea gurasoei edo arduradunei, dagokien geralekuan. Ondoezak larria baldin badirudi, gaizki dauden haurrak zaintzea, eta larrialdietako medikuei deitzea (112) jarraibideak jasotzeko, nola jokatu jakitearren.
 - Ikastetxeko zuzendaritzari ikasleen diziplinako hutsegiteen berri ematea, horrelakorik badago.
 - Eramaten diren ikasleen kopuruari, atzerapenei edo zerbitzuaren beste edozein alderdiri dagokionez aldaketarik baldin badago, haren berri ematea ikastetxeko zuzendaritzari.
 - Laguntzailearen presentzia nahitaezkoa den kasuetan, ezin izanen da garraioa egin laguntzailea ibilgailuan ez badago, salbu eta garraioa ez egiteak arrisku handiagoa balekar adingabeentzat. Ustekabean laguntzailea agertzen ez bada, enpresak behar diren neurriak hartuko ditu hura berehalakoan ordezteko.
 - Ibilgailua matxuratzen bada, ibilgailuaren barnean geldituko da ikasleekin, lasai, eta ikasleak entretenituko ditu harik eta gorabehera konpontzen den arte. Gertatutakoaren berri emanen dio ikastetxeari.
 - Istripurik izanez gero, lasai egon beharko du, eta ikasleak lasaitu, kalte fisikoak baloratu eta zauritutakoak zaindu, eta artatu, lehen laguntzaz dakienaren arabera; halaber, zaurituak kalte ditzakeen deus ez du eginen, 112 zenbakira deituko du eta istripuaren berri emanen dio ikastetxearen zuzendaritzari. Ikastetxeak, orobat, ikasleen gurasoei edo arduradun baimenduei emanen die horren berri.
 - Jakingarria izan daitekeen edozein aldaketaren berri ematea (ibilgailua, ibilbidea, etab.) ikastetxeari eta Hezkuntza Departamentuari, horretarako gaitu diren bitarteko

elektronikoen bidez.

- Garraioaren arduradunei laguntzea zerbitzua hobetzeko datuak hartzen eta kontrolatzen.
- Jakin beharko du ibilgailuaren segurtasun mekanismoak non dauden eta nola funtzionatzen duten; gidariari eskatu beharko dio ibilgailuaren segurtasun mekanismoak aldi berean behin egiaztatze beharrezko duen informazioa.
- Egiaztatzea ikasleek segurtasun uhala jarrita dutela.
- Egiaztatzea larrialdietako botikina dagoela, ongi horniturik dagoela, egoera onean, eta aldi berean behin berrikusten dela.
- Eskola garraioari buruzko indarreko araudia ezagutzea eta betearaztea.
- Hezkuntza Departamentuak aginduta, garraio zerbitzuan segurtasuna areagotzea dakarren beste edozein, bai eta eskola garraiorako eta adingabeen garraiorako segurtasun baldintzak arautzen dituzten arauetan ezarritakoak ere (apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretua).